

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antton Arza Arin

*Ataun,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

ATA-043

- **Proiektua:** Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den!
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garaio Mendizabal, Beñat
- **Data:** 2014-06-05
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Baserria erre zitzaienekoa

- **Erref:** ATA-043/006
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:08:22. **Bukatu:** 00:12:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Garai batean denek euskaraz hitz egiten zuten Ataunen. Anttonek Gasteizen ikasi zuen gaztelaniaz, Estampaciones Rubi lantegian (Gasteiz) lanean. Atauneko baserria erre egin zitzaien.

2. Ataunetik Gasteizera lanera

- **Erref:** ATA-043/007
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:12:59. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak

Laburpena:

Legorretako lantegi batean lan egin zuen Anttonek, baina toxikoa zen osasunarentzat eta utzi egin zuen. Hamahiru urterekin familiako baserria erre zitzaien eta beste bar errentan hartu zuten. Osaba batek Frantzia kalean taberna bat ireki berri zuen eta haren bitartez familia Gasteizera bizitzera joan zen.

3. Lantegian euskaraz egiteagatik kritikatuak

- **Erref:** ATA-043/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:27:24. **Bukatu:** 00:30:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Anttonen lantokian, bi euskaldun ziren: bera eta durangar bat. Behin, lankide batzuk haien kontra hasi ziren euskaraz hitz egiteagatik eta euskalduna ez zen beste lankide batek haien alde atera zen.

4. Lehen euskaraz egitagitik gorrotatuak; orain, mirestuak

- **Erref:** ATA-043/020
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:38:42. **Bukatu:** 00:41:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gasteizen egin dituzten lagunak, erdaldunak dira. Gaur egun, euskara askoz gehiago entzuten da Gasteizen eta ez dakitenek jakin nahiko lukete ere. Eusko Jaurlaritzak euskara bultzatu du. Gaur egun gustura bizi dira Gasteizen.

5. Euskararekiko ikuspegiaren aldaketa Gasteizen

- **Erref:** ATA-043/021
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:41:38. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gasteizko euskararen erabilerari buruz. Euskaraz ikasten duen jendearentzat, praktikatzeko leku edo gune gehiago behar dira. Antton eta Arantxarengana askotan joaten dira euskaraz praktikatzeko.

6. El Vasquiño eta La Vasca

- **Erref:** ATA-043/022
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Nahiz eta eremu erdaldun batean egon, haien arten beti euskaraz egin izan dute. Antton-i "Vasquiño" deitzen zioten lantegian eta Arantxari ere "la Vasca".

7. Seme euskaldunak, euskara ahazten

- **Erref:** ATA-043/024
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:49:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bi seme dituzte eta umetan joan ziren Gasteizera bizitzera. Hasieran gaizki pasatu zuten hizkuntzagatik baina gerora, euskara ahazten hasi ziren. Etxean bakarrik egiten zuten euskaraz.

8. Bizilaguna, ezkutuan euskara ikasten beraien etxean

- **Erref:** ATA-043/025
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:52:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Carlos Subijana bizilaguna zuten eta haien etxera maiz joaten zen euskara ikasteko. Bere gurasoek ez zioten uzten ez euskara ikasten ezta haien etxera joaten ere. Lagun handia dute gaur egun ere.

9. Semeak, euskaraz hezi izanagatik eskertuak

- **Erref:** ATA-043/029
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:58:24. **Bukatu:** 01:00:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bilobek beraiekin euskaraz egiten dute. Atauneko euskarara jotzen duten arren, batzuetan aiton-amonak zuzentzen dituzte. Semeak, euskaraz hezi izanagatik oso eskertuak dira.

10. Abizen euskaldunak izateagatik atxikituak

- **Erref:** ATA-043/030
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:00:48. **Bukatu:** 01:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Kentzekoa

Laburpena:

Behin, semeek arazoak izan zituzten guardia zibilarekin, bi abizenak euskaldunak zituztelako.

11. Lehen hitza gaztelaniaz

- **Erref:** ATA-043/031
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:02:02. **Bukatu:** 01:03:38

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ohituragatik, lehen hitza gaztelaniaz egiten dute,, uste dutelako jendeak ez dakiela euskaraz. Gero, euskaraz erantzuten badiete, asko pozten dira. Uste baino jende gehiagok daki euskaraz edo ikasten ari da.

12. Zer da euskara zuretzat?

- **Erref:** ATA-043/034
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:06:50. **Bukatu:** 01:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- 101L » Eleaniztasuna » Euskarari buruzko iritziak

Laburpena:

Euskara zer den beraientzat. Gaztelania baino zaharragoa den hizkuntza bat galtzea ezinezkotzat jotzen dute.

13. Euskara, integraziorako tresna

- **Erref:** ATA-043/035
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:08:42. **Bukatu:** 01:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- 101L » Eleaniztasuna » Euskarari buruzko iritziak

Laburpena:

Espainiatik Gasteizera lanera joandakoen ilobek normalean euskaraz badakite. Ez duenak ikasten, berekoia delako da. Nazioartetik etorritakoek euskararekiko inplikazio gehiago dute.

14. Euskara eta gaztelania, biak dira inportanteak

- **Erref:** ATA-043/038
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 01:12:11. **Bukatu:** 01:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztelania ere garrantzitsua da. Arantxaren ama Gasteizera bisitan joaten zenean, ezin izaten zuen inorekin hitz egin. Bi hizkuntzak dira garrantzitsuak eta gorrotoa ez da bidea.

15. Euskaldunak izateagatik diskriminatuak

- **Erref:** ATA-043/040
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:16:40. **Bukatu:** 01:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaztelera bizitzera joan zirenean, euskaldunak izateagatik diskriminatuak izan ziren. Gaur egun, euskaldunen eta erdaldunen komunitateak ez daude lehen bezain urruti.

16. Euskararen erabilera

- **Erref:** ATA-043/041
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:18:30. **Bukatu:** 01:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gasteizera bizitzera joan zirenean, ahal zuten leku guztietan euskaraz hitz egiten zuten. Gaur egun, ohituragatik gaztelaniaz egiten dute baina euskaldunen bat antzematen badute, hitz egitera joaten dira.

17. Beste euskalki batzuk ulertzeko zailtasunak

- **Erref:** ATA-043/042
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:21:16. **Bukatu:** 01:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batuko hitz asko ez dituzte ulertzen. Beste euskalki edo tokian tokiko euskarak ulertzeko zailtasunak. Bizkaitarrek ulertzen dute beraien euskalkia, baina haiek bizkaitarrena ez.

18. Euskalkia ez ulertzeagatik, gaztelaniaz hitz egin beharra II

- **Erref:** ATA-043/045
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:27:35. **Bukatu:** 01:29:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Antton Gasteizen lanean hasi zenean, lantegian Durangoko euskaldun bakar bat zegoen baina ez zuten elkar ulertzen.

19. Euskara batuaren onurak

- **Erref:** ATA-043/046
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:29:35. **Bukatu:** 01:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batuaren onurak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com